

INFORMAZIO-ZIRKULARRA: LANBIDE ARTEKO GUTXIENEN SOLDATA

Langileen Estatutuko Lege bateratuaren 27.1 artikuluan xedatzen dena betez, *otsailaren 4ko 231/2020 Errege Dekretuan* ezartzen denaren arabera, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egongo den lanbide arteko gutxieneko soldata zehaztu da, bai langile finkoentzat zein sasoiko edo aldi baterako langileentzat, bai eta etxeko langileentzat ere.

2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra artean indarrean egon ziren kopuruekin alderatuz gero, ikusiko dugu 2020rako ezarritako kopuruek %5,55 egin dutela gora.

*231/2020 Errege Dekretuaren 1. artikulua*ren arabera, lanbide arteko gutxieneko soldata 31,66 euro/eguneko edo 950 euro/hileko izango da, soldata hori eguneko edo hileko ezarrita dagoen kontuan hartuta. Halaber, *213/2020 Errege Dekretuaren 3. artikuluan* xedatzen denaren arabera, urteko gutxieneko soldatak ezingo du, inola ere, 13.300 euro baino baxuagoa izan.

LANBIDE ARTEKO GUTXIENEN SOLDATA	
LAGS eguneko	31,66 euro
LAGS hileko(14 soldata)	950,00 euro
LAGS urteko	13.300,00 euro

*Otsailaren 4ko 231/2020 Errege Dekretuaren 4.2 artikulua*ren arabera, **etxeko langileen** gutxieneko soldata **7,43 euro** izango da, lanordu bakoitzeko.

Enpresa berean ehun eta hogeit hamar egun baino gutxiagoz lanean aritu diren **sasoiko edo aldi baterako langileei** dagokienez, 1. artikuluan aipatzen den gutxieneko soldata jasoko dute. Horrez gain, igande eta jaiegunetako ordainsariaren zati proportzionala ere jasoko dute, bai eta aparteko haborokinari dagokion zati proportzionala ere, haborokin bakoitza hogeita hamar eguneko soldatari dagokiola kontuan hartuta. Beti ere, gogoan izan behar da lanbide arteko soldatak gutxienez **44,99 eurokoa** izan behar duela, **legez jarduera horretan emandako lanegun bakoitzeko**.

Errege Dekretu hau indarrean sartu da Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean egongo da 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitarte.

Gasteizen, 2020ko otsailaren 14ean